



Alderraia

Xabier Alday¹

Xabier Alday (Azpeitia 1975). Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasi zuen. “Lubaki Banda” talde literarioaren kidea da. 1993. urtean argitaratu zuen bere lehen liburua, “Bale zeru urdina” poema-bilduma.

Jose Luis Otamendi olerkari eta herrikideari esker hasi zen olerkiak idazten. 2000. urtean istorio laburren liburu bat argitaratu zuen “Bazterrekoak” izenburuarekin, Aceralian lan egiten zuen bitartean. Asko izan dira literatur lehiaketetan irabazitako sariak.

Gaztea etxearen azpialdean zetzan. Masailak atseginez ferekatzen zizkion lurraren hezeak, gutxienez azken mende erdian irauli gabe-koaren kiratsa zerion. Hauts zaharmindu idorra zoruko oholtzatik jausi eta euri zaparradaren gisa aurpegira erori zitzaion. Berehala burua aldame-nera itzuli eta txu egin zuen, postura ezin desero-soagoan. Besoa kontu handiz altxatu, eta atorraren mahukarekin betondoak garbitu zituen. Burua egunsentiko argi naturala jausten zuen etxeko hormen mugara biratu zuen. Agurearenak behar zuten oinak ikus zitzakeen belauetatik behera, beste inor ez baitzen ordu haietan etxaldera arri-matzen. Juxtu une berean, Agurea purrustaka belaunikatu zen, etxaldearen azpian lanak nola zihoazen gainbegiratzeko.

Etxalde zaharreko zorua berdintze lanetan ziharduten azken egunetan. Inguruetakojatorrizko baserri guztien moduan, ez zuen zimendurik, egurrezko paldo eta piloteetan oinarrituta altxatzen zen.

–Ertzak berdindu eta lanik gaitzena menderatu diagu! –ohartu zion Agureak.

Urteak alferrik igaro ez bazitzaizkion ere, artean lanerako borondate ikaragarriaz gain, gazteagoen esanekotasuna bereganatzeko jendetasun itzela gordetzen zuen.

Gazteak patxadaz berriro begietako hautsak kendu eta katua estutu zuen. Zenbait lekutan kontuz ibili behar zuen oinak eta sudurra egurrezko

soliba ia ustelduekin ez urratzeko. Ez zuen ihesbiderik, ezta nahi ere. Atsegin zuen Agurea, ezagutu zuen unetik. Azkar itxi zuten tratua.

Hamaiketakoa hartu zuten lanean jarraitu aurretik, ahal zuten moduan eguzki galgatik babes-tuz. Sargoria itzela zen: itolarria, hezetasunik gabea, ia arnasa hartzea eragozten zuen. Agureak astiro-astiro mastekatzen zuen madari urtsua. Lepoa zimurrez mukuruz zuen, hiruzpalau eguneko bizar zuriak barailen alde banatara.

Gazteak bazekien Agureak heriotza gertu zuela. Edozein egunsentiz, lurrean zerraldo etzanda aurkituko zuen, belarri bikainak bizitzari sorario. Gazteak asma ezin ahala eskarmentuz betetik zegoen Agurea. Apur bat tristea zen bere bizitzaren eremurik urrunetan elkar topo izana, ahulduta eta bakar-bakarrik, baina azken hura Agureak nahita hautatu bizimoduaren ondorioa zen. Zaparradak bete-bete harrapatu zuen, baina erremediorik gabe itotzera zihoala zirudien bakoitzean, hanka baten gainean soilik haseran, eta ondoren, balantzaka zaldi zaharren moduan, burua altxatu zuen. Badira, azkena gertu ikusten dutenean, patxada betean heriotzari itxarotera etzaten diren abereak, mantsoak, baina Agurea ez zen horietakoa.

Termoaren tapakia jaregin eta limoi zukuaz nahastutako tea zerbitzatu zuen edalontzira. Zalea zen. Gaztainondo garaien itzal geldoen magalera etzanda, haizea historik arinenak astintzeko ere indarge.

Jan ostean, auto eta etxeko tresna zahar-rak desmuntatu eta ordezkoko piezak saltzen zituzten zabortegira zuzendu ziren. Aurreko kristaletik sartzen ziren eguzki izpiek izterrak erretzen zizkien.

1. XXIX. “Erretereria Hiria Ipuin Lehiaketa”ren 1. saria egilearen irabazlea. Ereintza Elkarrekin antolatutako eta Erretereria Udalaren babesarekin.

Epaimahaia: Juan Gartzia eta Mirentxu Larrañaga.



Zabortegiko sarrerako hesia irekita zegoen, eta Agurea, geratu eta bozina jo gabe aurrera egin zuen. Erreka ondoraino gidatu zuen autoa, non ezustean, hain jende gutxi bizi zen eremu batentzako inork aurrez iragarriko ez zuen zelaitzarra tresna zaharrez eta zaborrezko muinoz gainezka zabaldu zitzairen. Sabaian izara zuriak eskegi ziren etxola zaharretik lan-jantzi margula soinean zeraman gizona atera zitzairen bidera pasoa debekatuz. Garaia zen oso eta sorbalda beltzaran sendokoa. Erreka ondoan aparkatutako auto garbitu berriaren distirak begiratuak itsutu zizkien Agurea eta Gazteari.

–Hodi eta tutu batzuen bila etorri gaituk – esan zion Agureak.

Zabortegiko arduradunak zirkinik ere egiten ez zuela ikustean, erantsi zuen:

–Gaztea nirekin zatorrek! Etxeko zimenduak berritzen laguntzen ari zaidak!

Gizonak ez zuen deus erantzun. Guzti hura ez zitzaiola tutik ere axola aditzera ematen zuen erdeinuzko keinua zuzendu eta etorritako bidetik desagertu zen. Agurea, autoa han bertan utzi eta besaulki zaharrak, hozkailu herdoilduak eta era guztietako altzariak elkarren gainean metatzen ziren zokoan barrena aurreratu zen. Airean usain

garratz bezain sarkorra. Sastraka harroek pilotik erorita ia errekaaren emarian hondoratzeaz zeuden bizpahiru garbigailu eusten zituzten. Gazteak Agureari seinatu zizkion, dezenteko isuna ez jasotzeko haiek berreskuratu eta gainontzeko garbigailuekin batera pilatu behar zirela adieraziz. Agureak ez zion jaramonik egin. Tutu guztiak elkarren artean, nahas masa izugarrian aurkitu zituzten. Gazteak ostikoka banatu zituen elkarren artetik, zalantzas beteta, helburu argirik gabe. Aurpegi hitsa jarri zion Agureari.

–Balioko diate –erabaki zuen Agureak ordea.

Gazteak autoaren maletgia ireki eta zaku zahar bat atera zuen. Tentuz hautatu zituzten sendoenak, herdoilgabeak ziruditenak eta Gazteak, elkarrekin bat zetozen piezak zaku ezberdinetan gorde eta autoan sartu zituen. Irteterakoan besoa altxatuz agurtu zuen zabortegiko arduraduna. Hark berriz, ez ikusiarena egin zien.

Astiro egin zuten itzulerakoa, leiho guztiak zabalik, izerdiaren jarioa etenik gabe kopetan eta kokotsean behera. Agureak atzeraka bota zuen eserlekua eta ia bide osoa lo kuluxkan egin zuen, arnasa biriketan gora eta behera nekez bultzatuz. Autoa bideko zulo guztietan dardara betean

kulunkatzen zen, hoditeriak maletegiko paretak eta atzeko eserlekuak kolpatzen zituen.

–Gizon bitxia Estanis! –esan zuen Agureak–. Herrian ez diate gogoko! Zaborteia ireki zianetik hasi omen huen herriaren gainbehera ziotek askok eta askok. Batek zakik ordea! –Agureak inguruko auzo guztiak elkartzen zituen errepide hutsa beha zuen, erantzun posible guztiak handiz balez bezala, asfaltoa eguzkitara urtzen–. Beragatik izango ez bahu, txatar guzti hori kaleetan pilatuko huke, nork jasoko zain, baina jendeak ez ziotek batere meriturik onartzen. Hori duk arazoa: jendeak ez dik uste balio gabeko tresnak paretik kentzeagatik ordaindu beharko luketenik!

–Guri ez ziguk kobratu –erantzun zion Gazteak.

–Bai zera! Estanis eta biok lagun zaharrak gaituk, geure erara.

Herriaren sarrerara iritsi zirenean, gaineratu zuen:

–Eskubide beteko hiritarrak deituko gaitiztek gainetik! Utikan!

Gazteak adi-adi begiratu zion, jarraitzea animatu nahiko balu bezala, baina Agurea bertan behera isildu zen. Usabiaga tabernako ohiko egoiliarak kanpoan itzaletan eserita ikusi zituzten igaro zirenean. Zenbait buru itzuli eta ahapeka, erdi ezkutuko irribarre maltzurren artean zerbait komentatu zuten. Ez zuten Gaztea gustuko, oro har, kanpotarrak ez zituztelako jasaten. Agurea ez zuen tabernan sartzeko ohiturarik. Bazekien paretik igaro bakoitzean, bere bizkar iseka egiten ziotela, baina ez zitzaion axola. Usabiaganeko hautsontziak plastiko horikoak ziren, erlojuak aspaldi ekoizteari utzitako garagardo marka baten izenean jotzen zituen orenak. Gazteak ordea, eguneko lanak amaitutakoan, atsegin zuen bertan eztarria freskatu eta egunkaria irakurtzea. Berdin egin zuen arratsalde hartan ere.

Betikoak kanpoan eserita jarraitzen zuten. Zentrala itxi eta nora jo ez zutela erabaki ondoren, ez zuten besterik egiten egun osoan. Baina ez zuten elkar agurtu.

–Zer nahi duk? –zakar xamar galdetu zion Usabiagak barra ertzera hurbiltzean.

–Garagardo bat! –eskatu zion Gazteak, egunkaria eskuetan hartuta.

Paretan diseekatutako otso baten burua zetzan. Garai oparoenetan, herriko hainbat gizon elkarrekin inguruko mendikate garaietara jotzen zuten ehizara oporretan. Baziren ozeanoa gurutzatu eta Argentinara jotzen zutenak ere. Orain berriz,

disekatutako otsoaren buruak kristal lodiko betaurrekoak zeramatzen sudur gainean, gorritz margotutako igeltsuzko mihia kanpora aterata.

–Zer moduz zihoak Agurearen etxea? Batere ordaintzen al dik? –itaundu zuen Usabiaga zaharrak.

Gazteak, lotsaz benetan irabazten zuena baino lansari handiagoa aitortu zion.

–Hemengo garbitzaileak adina! Ez zagok eskubiderik! –kexatu zen tabernaria.

Agurearen zuhur ospea ezaguna zen auzoan. Buruaz baietz egin zuen begiratu egunkariaren azalera saihestu aurretik. Lan astuna eta nekeza zen, baina auzora iritsi zenean, premia larrian, Agureak soilik zuzendu zion hitza, Agureak soilik luzatu ogi muturra. Diruaren gainetik dagoen leialtasuna zor zion.

Seigarren astea zeramaten jarraian euri tantarik erortzeke. Eguzkiak harlauza astunaren gisa zapaltzen zituen.

Hurrengo goizean, Agureak aitzurra eta pala atera zituen etxearen atzealdetik. Goiz hartan inoiz baino tenteago agertu zen, esku bakarrean lanabesak zituela. Ondoren, ganbaratik eskorga bete zaku porlan jaitsi zuen. Gazteak lurrera bota zituen zakuok. Balda zaharren bat ote zuen galdetu zion Agureari, eta honek eskorga bera erabiltzeko keinua egin zion. Gazteak, labanaz zakuak zulatu eta mangeraz eskorga busti zuen. Ondoren, etxeko zimenduetako hormigoia izango zena nahasteari ekin zion: bost palaka legar, harez betetako hiru eta porlanezko bat eta erdi. Agureak adi-adi gidatzen zuen zeregin bakoitzean. Tarteka ur botila luzatzen zion eguneko ordurik freskoe-nak lanik astunenak prestatzeko aprobeztatu nahi zituen Gazteari. Eguzkiak labe garaietako burdin goriak bezala berotzen zituen egunero, goizetik gauera. Nahasketa behar bezala gogortzeko aitzurraz behin eta berriro irabiatzen zuen, ur gehiago isuri aurretik. Nahasketak zeru lainotuaren kolore urdin bizia eskuratu zuen berehala, legarra nabarmenduz. Gazteak Agureari begiratu zion oniritzi bila.

–Horrela ondo zagok! –marmar egin zuen Agureak. Maiz bere kolkorako mintzo zen. Sorbaldak uzkiuz eskorgari heldu zion ondoren-. Ondo nagok –esan zuen, z-k ahoskatzerakoan hortz artean zitsu eginez, bi eskuez orgatilen eskulekuetako bati heldu bitartean.

Gazteak, bere kasa arituz gero bizkorrago amaituko zukeela pentsatu arren, ez zion ezer leporatu. Bion artean bultzatu zuten orgatila, masa ezker-eskuin zabuka, aurrez prestatuak zituzten egurrezko moldeetaraino. Gazteak zulatu zuen

zanga osoa. Moldeak azkenekoz gainbegiratu ostean, eskorga makurtu eta likido usua mutur kanalatutik behera isuri zen. Orgatila arraspatu zuen erabat hustu zuela ziurtatu arte, eta ondoren zangaren albo biak aztertu zituen pala muturraz, zirrikitu guztiak estaltzeko. Bigarren txangoan, Agurea jada itzalpean eserita begiratu zuen Gazteak nola bultzatzen zuen orga, ordurako gerritik gora biluzi, ekiak bizkarra eta sorbaldak kiskaltzen; giharrak dardarka orgatila irauli bitartean.

Obrak irauin artean, eliza ondoko etxe abandonatuan bizi ziren. Teilatua ia erortzeko zorian zuen, eta horregatik, badaezpada ere, beheko solairuan bizi ziren. Bainugela txukun xamarra zen. Bizitza laburregia da. Bero zeritzan neskalaguna Usabiagarrean zerbitzari gisa aritzen zen. Izter gogorak zituen. Ez zen oso hiztuna, baina bere begiratuan, norbere hartzaroaren zantzuak aurkitzen zituen edonork. Inoiz ez zuen besarkatzen jendearen aurrean, baina zeharo jeloskortzen zuen, tabernako barra ertzean, bezero batekin hizketan luzaroan aurkitzeak.

Gazteak ez zuen begirada egunkaririk altxatzen Beroz hitz egiten entzuten zituenean. Tebistan, pilota partidak eskaintzen zituzten ostiral iluntzetik hasita igande arratsera arte, eta hura

ikustera biltzen ziren bezeroak –gehientsuenak bizitzan zorte gutxi pairatu zuten berrogeitaka urte-tik gorako gizonezkoak– Beroren izterrekin amesten zuten pilotakada biziakin baino. Auzoko gizon guztien gutizia zen. Erretzaile petoa, baina hortz zurizuriak zituen. Tabernan apopilo zegoen. Ez zuen etorkizunerako egitasmorik. Gazteak Hiriburuaz hitz egiten zion, baina ez zekien.

Beroren begi ilunen ostean pilatzen ziren ideiak irakurtzen. Gazteak, maiz, ezetz erantzuten ez zekien neska gajotzat jotzen zuen. Bestaldera itzultzen zuen burua, protesta keinu sotilean, belardietan bazkan ziharduten txahalen antzera. Animalia mantso bezain ederrak, begirada galdua, urrikakorra. Lepotik eskegi sokatik tiraka ekartzen zituzten hiltegiara, auzotarren begiratu axolagabearen aurrean. Mailuaz garondoa hautsita, herio beldurra begirako begiostean grabatuta, urruma indargetuak... Ahalik eta xemeko gutxienak xahutzen zituen gazteak elkarrekin zeudenean. Dirua aurrezten ari zen. Berok bazekien.

Fatxadari ekin zioten. Gazteak besagai-netan, azala harrotu eta erortzen hasia zuen jada. Eguzkia ezkutatzeko jada etxearen egitura, nahikoa gorpuztua zetzan. Agureak bazter guztiak mangerarekin garbitu zituen. Ondoren



Gaztearengana itzuli zen, bere kabuz barrezka. Zuzenak bezain zorrotzak zituen hortzak, sorzetikakoak guztiak.

Aurkakoa pentsa bazitekeen ere, eguzkia ezkutatzean tenperatura ez zen gradu erdirik ere jaisten. Aspaldiko urteetako udarakik sargorienean, askoren esanetan, eta tenporak iristeko oraindik falta zena. Usabiagarrenean, ez zen beste hizketa gairik.

–Marka guztiak hautsiko ditik! –zioten elkarri.

–Trumoiak lehertu artean, ezin dik jarraian, askoz gehiago irau!

–Eta trumoiak bazter guztiak eramango ditik!

–Ereindako guztia lurretik jalgi aurretik usteldu zaiguk!

–Zer izango duk? –galdetu zion Usabiagak.

Tabernariaren adimen urriko semeak edalontziak garbitzen ziharduen. Zikindutakoekin amaitutakoan, barrapean gordetzen zituzten edalontzi lehorrak atera, eta berriro arraskan sartzen zituen banan-banan. Ez zuen Bero ikusi. Gazteak garagardoa eskatu zuen. Bezero guztiak barra ondoan zeuden, besoak oraindik lan-egunaren ostean pilatutako hautsaz zikinduta. Kalearen bestaldean, iluntzearekin batera, ate eta leiho guztiak irekita, plater eta edalontzien hotsak iristen zitzaizkien. Telebistako esatariaren ahotsak soilik urratzen zuen gaueko isiltasuna. Urrutirago, guztiz agortutako harrobia. Aitor Zinkunegik bezala, nahigabea hezurretaraino barneratu ondoren ia hitzik ere egiten ez zuten gizonak. Ohitura finkoetako gizon arruntak. Leihoetako kristaletatik harandio beha zuten bizimodua goitik behera eraldatuko zien aukera pasatzen noiz ikusiko zuten zain.

–Hemen zatorrek berriro –ukondoaz jotzen zuten elkar Gaztea ikustean.

–Bera duk bai!

Burla haizez barre egiten zuten, buruak makurtuta, xuxurlaka, apustuan.

–Sekulako patxada aurpegia zekarrek! –zioten gehienetan

Uda amaitu aurreko azken aste sargorietan amaitu zuten etxea. Haizeak barreiatu zituen sobratutako masa eta porlan hautsak. Gauez asko freskatzen zuen ordurako, udazkeneko lehen zantzuak, ilundu ostean argi guztiak itzaltzen ziren auzoan. Zuhaitzen isila. Kolorez mudatzen hasiak ziren hostoak, sendoenek baino ez zuten biziraungo hurrengo udaberria arte.

Goiz batean, Gazteak Agurea lurrean zerraldo hilik aurkitu zuen. Aurpegian, haizea biriketaratzeko azken ahaleginaren keinua, aurrez galdutako borroka setatien. Sukaldeko bonbila bakarra piztuta, sufrimenduz eta bakardadez betetako heriotzaren tamalgarria. Ahoa zabalik ezpainak zartatuak.

Bero eta biek, hogeitau urte inguru zitueneko argazkiak aurkitu zituzten, mustupil serioak, base-rrian hazitako begitarteko zorrotzak. Eskuak gurutzatu zituzten sabel gainean.

Gazteak eta Berok iparraldera jo zuten bigarren mailako errepidetan barrena hiru mila euro azpitik erosi zuten bigarren eskuko autoan. Egun bakoitza lehena eta azkena balitz bezala. Irratian ezer interesgarririk aurkitzen ez zutenean, lagun minak direnei soilik aipatzen zaizkien bizipen eta pasarteak kontatzen zituzten elkarri.